



Eskola Kirola – 2019-2020ko lehiaketako arautegia

JUDO

1. artikulua

Partidak azaroan hasiko dira.

2. artikulua

3 jardunaldi egongo dira kategorია bakoitzeko (benjaminak, kimuak, haurrak eta kadeteak)

- Taldekako jardunaldi bat izango da. 11 urtez azpikoek eta 13 urtez azpikoek osatuko dituzte taldeak.
- Amurrioko Txapelketa, Shiai San Viator Txapelketa eta Chupetín Virgen Niña Txapelketa egingo dira.

3. artikulua

Hauxe izango da puntuazioa:

- 1 puntu, parte hartzeagatik
- 3 puntu, hirugarren postua lortzeagatik
- 5 puntu, bigarren postua lortzeagatik
- 7 puntu, lehenengo postua lortzeagatik

4. artikulua

Kategoria bakoitzean ikastetxeen sailkapen orokorra egingo da.

5. artikulua

- Bereizirik dagoen areto batean izango da pisaketa (ahal badin bada), eta Eskola Kirolaren arduradunak eta zozketaz aukeratuko diren 2 arbitrok egingo dute.
- Judogiko prakak bakarrik jantzita pisatuko dira benjaminen eta kimuen kategorietakoak eta, haurren eta kadeten kategoriakoak, berriz, azpiko arropa jantzita.
- Jardunaldi guztietan egingo da pisaketa.

6. artikulua

Jardunaldi bakoitzean ikastetxe bat arduratuko da berotze ariketez, hau da, aldian behin irakasle batek zuzenduko du berotze orokorra.

7. artikulua

Izena emateko orriak lehiaketa baino hiru egun lehenago bidali beharko zaizkio Eskola Kirolaren arduradunari posta elektronikoz. Ez da onartuko geroago heltzen den orririk.

8. artikulua

Izena emateko orri ofiziala baino ez da onartuko. Datu guztiak beteta egon behar dira eta pisuen arabera ordenatuta, pisaketa arinago egiteko.

Bi orri egongo dira beti, bata mutilen kategoriarako eta bestea neskenarako.

Horrela egin ezean, behar bezala egin arte itzuli egingo da orria.



▶ Arabako Foru
Aldundia
Diputación
Foral de Álava
▶

www.araba.eus

9. artikulua

Haurren kategorian, hiru jardunaldiak egin eta banakako sailkapen orokorra osatu ondoren, pisu bakoitzeko aurreneko biak aukeratuko dira, haurren selekzioaren probetan eta Euskadiko Eskola Jokoetan parte har dezaten. Nolanahi ere, arduradunak du kirolariren bat gehitu edo kentzeko azken erabakia hartzeko ahalmena, baita pisuetan aldaketak egitekoa ere.

10. artikulua

Haurren kategoriako jardunaldiak epe laburrean egingo dira, ranking egunetatik hurbil, judoek ez dezaten arazorik izan pisuarekin.

11. -diziplina araudia

391/2013 DEKRETUA, uztailaren 23koa, eskola-kiroleko lehiaketan diziplina-araubideari buruzkoa izango da aplikagarria.

**ARAUTEGI HONEK XEDATZEN EZ DUEN GUZTIA ESKOLAKO KIROLARI
BURUZKO UZTAILAREN 1EKO 125/2008 DEKRETUAK ARAUTUKO DU, ETA
DEKRETU HORREK XEDATZEN EZ DUENA, BERRIZ, ARABAKO JUDO
ELKARTEAREN LEHIAKETA ARAUTEGIAK.**